

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 721/2015 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, aldatzen duena abenduaren 17ko 651/2007 Foru Agindua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako diru sarreraren urteko laburpenaren 190 eredia onartu zuena. Lan eta jarduera ekonomikoen etekinak, sariak eta zenbait errenta egozketa, bai eta, 10-T eredia (lan eta jarduera ekonomikoen etekinak eta sariak) eta euskarriek izan beharreko diseinu fisiko eta logikoak ere

Abenduaren 17ko 651/2007 Foru Aginduz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako diru sarreraren urteko laburpenaren 190 eredia onartu zen. Lan eta jarduera ekonomikoen etekinak, sariak eta zenbait errenta egozketa, bai eta euskarriek izan beharreko diseinu fisiko eta logikoak ere.

Foru agindu honek idazkuntza berria ematen die ereduaren euskarri diseinuetako zenbait eremuren jarraibideei.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 17ko 651/2007 Foru Agindua, onartzen duena 190 eredia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarienak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena, bai eta ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarriek izan beharreko diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T eredia ere.

Lehenengoa. Indargabetu egiten da abenduaren 17ko 651/2007 Foru Aginduaren bigarren xedapen zatiko 2. zerbakia.

Bigarrena. Aldaketa hauek egiten dira abenduaren 17ko 651/2007 Foru Aginduaren II. eranskinaren bidez onartutako diseinu fisiko eta logikoetan, zeinetara egokitu behar duen 190 ereduaren ordenagailu bidez zuzenean irakurtzeko euskarriak:

Bat. Aldatu egiten da "HARTUTAKO KOPURUAREN GAKOA" eremuaren edukia, 2 erregistro motako 78 posizioari dagokiona (hartzailearen erregistroa), honako era honetan:

1. "A Lan etekinak. Besteren konturako langileak, oro har" gakoaren deskribapenean hirugarren paragrafo bat gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

"AZPIGAKO eremuan zerrendatutakoetatik dagokion azpigakoa adieraziko da nahitaez."

2. "K Sariak" gakoaren deskribapenean laugarren paragrafo bat gehitzen da. Hona hemen haren edukia:

"AZPIGAKO eremuan zerrendatutakoetatik dagokion azpigakoa adieraziko da nahitaez."

Bi. Aldatu egiten da "AZPIGAKOA" eremuaren edukia, 2 erregistro motako (hartzailearen erregistroa) 79- 80 posizioei dagokiena, honako era honetan:

1. Aurrerantzean hau izango da lehen paragrafoan ageri den deskribapenaren testua:

“A, B, E, F, G, H, I, K eta L gakoai dagozkien hartzekoak izanik, kasuan kasuko hartzekoei dagokien azpigako numerikoa ere adieraziko da, ondoren zerrendatzen eta aipatzen diren gakoetako azpigakoen arabera. Ez da beteko eremu hori aipatutakoez bestelako gakoai dagozkien hartzekoetan.”

2. Beste paragrafo bat gehitzen da “AZPIGAKO” eremuan. Hona hemen izango duen testua:

“A gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak:

01 A gakoaren hartzeko guztietan azpigako hau adieraziko da, baldin eta 02 azpigakoaren pean zerrendatu beharrekoen bestelakoa bada.

02 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta langilearen enplegatzaileak lanerako ezintasuna dela-eta zuzenean ordaindutako hartzekoak badira (Gizarte Segurantzarekin den lankidetzak akordioaren ondorioz). Bestelakoetan, hartzeko horiek B gakoan, 02 azpigakoan, islatuko dira.”

3. “AZPIGAKO” eremuko “B gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak” paragrafoko azpigakoa aldatzen da. Hona hemen izango duen testua:

“B gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak:

01 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiro arruntagatik hartzen diren GSINen eta haren ordezkio erakundeen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

02 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta Gizarte Segurantzaren edo klase pasiboen herri araubideetaren batek langileari zuzenean ordaintzekoak badira lanerako ezintasunaren ondorio diren hartzekoak. A gakoan, 02 azpigakoan, islatuko dira, baldin eta hartzeko horiek zuzenean ordaintzen baditu enplegatzaileak (Gizarte Segurantzarekin den lankidetzak akordioaren ondorioz).

04 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta B gakoan gainerako azpigakoetan zerrendatutako bestelako hartu beharreko prestazioak badira.

10 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta 55 urtetik gorako erabateko edo zati ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezkio erakundeen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

11 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta 55 urtetik beherako erabateko edo zati ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordezkio erakundeen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

12 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiro partzialagatik hartzen diren GSINen eta haren ordezkio erakundeen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

13 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiro aurreratuagatik hartzen diren GSINen eta haren ordezkio erakundeen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

14 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta alargun pentsioagatik hartzen diren GSINen eta haren ordezkio erakundeen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

20 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta borondatezko bajagatik BGAE-ek, PPEk eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.

21 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiroagatik BGAE-ek, PPEk eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.

22 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta ezintasunagatik BGAE-ek, PPEk eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.

23 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta heriotzagatik BGAE-ek, PPEk eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.

24 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta mendetasunagatik BGAE-ek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.

25 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta lanik gabe luzaroan egoteagatik BGAE-ek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.

26 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta gaixotasun larriagatik BGAE-ek, PPek eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.”

4. Beste era batera idazten dira E gakoari dagozkion azpigakoak. Hona hemen izango duten testua:

“E gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak:

01 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta kontseilaria edo administratzailea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean badago besteren konturako langileekin berdinetsita.

04 E gakoaren hartzeko guztietan azpigako hau adieraziko da, baldin eta 01 azpigakoaren pean zerrendatu beharrekoen bestelakoa bada.”

5. Beste era batera idazten da 04 azpigakoa, G gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoen barruan. Hona hemen izango duen testua:

“04 Hauetan adieraziko da azpigako hori: 2015eko urtarrilaren 1a eta uztailaren 11 bitartean ordaindutako prestazioak direnean eta Zergaren Araudiaren zarpigarren xedapen gehigarrian, 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean dagoenean, ezarritako atxikipen tasa berezia aplikatu behar zaienean, baldin eta jarduera profesionalak garatzen dituzten zergadunek ordaindutako etekinak badira eta aurreko ekitaldian jarduera horien etekin guztiek 15.000 euro baino gutxiago egiten badute eta zenbateko hori ekitaldi horretan zergadunak jarduera ekonomikoen eta lanaren ondorioz lortutako etekinen ehuneko 75 baino gehiago bada.

Oro har, ehuneko 15 izango da 2015eko uztailaren 12tik aurrera ordaintzen diren jarduera profesionalen etekinei aplikagarri zaien atxikipen eta konturako diru sarreraren ehunekoa. Egun horretatik aurrera 01 azpigakoan adieraziko da.”

6. Beste paragrafo bat gehitzen da “AZPIGAKO” eremuan. Hona hemen izango duen testua:

“K gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak:

01 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta hartzekoak publizitate asmorik ez duten joko, zozketa edo konbinazio ausazkoetan parte hartzearen ondorio diren sariak badira. Horiek guztiek maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen, jokoa arautzen duenaren, 3.a) artikuluan “joko” kontzepturako zehaztutakoak bete beharko dituzte. Haren ezaugarri nagusia da dirua edo besten zenbait ondasun arriskuan jartzen direla halako saria edo irabazia lortzeko aukeraren truke.

03 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta hartzekoak publizitate asmoa duten lehiaketa edo konbinazio ausazkoetan parte hartzearen ondorio diren sariak badira eta haietan parte hartzeagatik ezer ordaindu behar ez bada; alegia, maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen, jokoa arautzen duenaren, 3.a) artikuluan “joko” kontzepturako zehaztutakoekin zerikusirik ez badu. Horiek horrela, horien artean sartuko dira komunikabideetan egindako programen eta 13/2011 Legearen 3.i) artikuluan publizitate eta sustapen asmoa duten konbinazio ausazkoen ondorio diren sariak.”

7 Ezabatu egiten dira 21 eta 31 azpigakoak, beste era batera idazten da 19 azpigakoa eta, L gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoen barruan, beste azpigako batzuk (22, 23, 25 eta 41) sortzen dira. Hona hemen izango duten testua:

“19 Beregaintasun pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran bizi diren pertsonen laguntzeko legeak mendekotasun egoeran daudenak etxean bertan zaintzeko xedatutako prestazio ekonomikoak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 26. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.”

“22 Autonomia erkidegoek ezarritako prestazio ekonomikoak, baliabide ekonomikorik ez dutenei iraupenerako baliabide ekonomikoak bermatzeko txertaketako errenta minimo kontzeptupean; bai eta autonomia erkidegoek edo toki entitateek ezarriko dituzten gainerako laguntzak ere, beren araudiaren arabera, laguntza emateko hainbat kolektibori: gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenei; gizarte larrialdiko egoerak dituztenei; baliabiderik ez duten eta bizileku beharrak dituzten pertsoneri; edo elikadura, eskolaratze edo gainerako oinarriko beharrak dituzten adingabeei edo ezinduei, beraiek eta beraien mende daudenek baliabide ekonomiko nahikorik ez badute.

23 Honako bi testu hauen ondoriozko laguntzak: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, babes integraleko neurriei buruzkoa; Agindua, 2007ko azaroaren 29koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, genero indarkeriaren biktima diren emakumei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena (dirulaguntza horiek aurrean aipatutako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan ezartzen dira), eta lurraldeko herri administrazioek emandako laguntzak, baldin eta abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren helburu bera badute eta, Zergaren Foru Arauaren 9.32 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, salbuetsita badaude.

25 Salbuetsitako beste errenta batzuk. Azpigako honekin zerrendatu behar dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargatik salbuetsita egonik 190 eredian aitortu behar diren errentetatik aurreko eta geroagoko azpigakoetan berariaz adierazten ez direnak.

41 Erabateko ezintasun iraunkor edo partzialagatik emandako prestazioak, Zergaren Foru Arauak 9.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.”

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta, 2015eko ekitaldiko informazioa dela eta, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitopenei aplikatuko zaie lehenengo aldiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 10a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ